

Euskal baleazaleak

Berebiziko historia baten irudiak eta aztarnak

Balleneros vascos

Imágenes y vestigios de una historia singular

JOSÉ MARÍA UNSAIN



U·M

UNTZI MUSEO - MUSEO NAVAL
Donostia - San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Euskal baleazaleak

Berebiziko historia baten irudiak eta aztarnak

Balleneros vascos

Imágenes y vestigios de una historia singular

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA · DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

Diputatu Nagusia · Diputado General
MARTIN GARITANO LARRAÑAGA

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko Diputatua
Diputada del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte
IKERNE BADIOLA GARCIA

Kultura Zuzendaria Nagusia · Directora General de Cultura
GARAIZ LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI

ARGITALPENA · EDICIÓN

Argitaratzailea · Edita
UNTZI MUSEOA (GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA)
MUSEO NAVAL (DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA)
Donostia-San Sebastián, 2012

Finantza-lankidetzak · Colaboración financiera
EUSKO JAURLARITZA (KULTURA SAILA)
GOBIERNO VASCO (DEPARTAMENTO DE CULTURA)
KUTXA FUNDAZIOA
EUSKAL HERRIKO ITSAS FOROA · FORO MARÍTIMO VASCO

Testuak eta bilketa grafikoa · Textos y recopilación gráfica
JOSÉ MARÍA UNSAIN

Aholkularitza · Asesoramiento
MICHAEL BARKHAM

Laguntza teknikoak · Asistencia técnica
SOCO ROMANO, ANA IZA

Itzulpena euskarara · Traducción al euskara
EUSKARA ZUZENDARITZA NAGUSIA (GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA)
LUIS MANTEROLA (TISA)

Maketazioa eta azala · Maquetación y cubierta
JOSÉ MARÍA UNSAIN

Argazkien erreproduzioak · Reproducción fotográfica
JUANTXO EGAÑA

Fotokonposizioa · Fotocomposición
IPAR S.L.

Moldiztegia · Imprenta
LEITZARAN GRAFIKAK

© de la edición, Diputación Foral de Gipuzkoa y Airu Z.K.
© del proyecto, textos y recopilación gráfica, José María Unsain
© de las obras reproducidas, sus propietarios

Azaleko irudia: Lohobiague etxeko jangelako panela ("Maison Louis XIV", Donibane Lohizune), I. eta T. Landelle-k 1859an margotua.

Imagen de cubierta: Panel del comedor de la casa Lohobiague ("Maison Louis XIV", San Juan de Luz) pintado por I. y T. Landelle en 1859.

ERAKUSKETA · EXPOSICIÓN

"BALEAZALEAK. CAZADORES DE BALLENAS"

Antolatzailea · Organiza
UNTZI MUSEOA (GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA)
MUSEO NAVAL (DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA)
Donostia-San Sebastián, 2011-2012

Komisarioa · Comisariado
JOSÉ MARÍA UNSAIN

Koordinazioa · Coordinación
SOCO ROMANO, JOSÉ MARÍA UNSAIN

Aholkularitza · Asesoramiento
MICHAEL BARKHAM, JOSÉ ANTONIO AZPIAZU

Laguntza teknikoak · Asistencia técnica
ANA IZA, AMAGIOIA ETXEBERRIA

Diseinu grafikoa · Diseño gráfico
JAVIER LÓPEZ ALTUNA

Muntaia · Montaje
EXPOLAN

Garraioa · Transporte
BASKOTAXI, EXPOLAN

Argazkiak · Fotografías
JUANTXO EGAÑA, JOSEBA BONTIGUI

Produkzio grafikoa · Producción gráfica
DRUCK

Finantza-lankidetzak · Colaboración financiera
EUSKO JAURLARITZA (KULTURA SAILA)
GOBIERNO VASCO (DEPARTAMENTO DE CULTURA)
KUTXA FUNDAZIOA

UNSAIN AZPIROZ, José María (1951-)

Euskal baleazaleak : berebiziko historia baten irudiak eta aztarnak =
Balleneros vascos : imágenes y vestigios de una historia singular /
José María Unsain Azpiroz. – Donostia-San Sebastián :
Untzi Museoa-Museo Naval, 2012
177 p. : il. col. y n., fot. ; 25 cm
Bibliografía: p. 170-173. – Índice . – Textos en euskera y castellano

DL SS XXXX-2012. - ISBN 978-84-615-8122-1

1. Ballenas - Pesca - Historia - Obras ilustradas. 2. Balleneros vascos.
3. Pescadores vascos. 4. Ballenas - Obras ilustradas. I. Untzi Museoa-
Museo Naval (Donostia-San Sebastián), ed.

639.245(091)(084)
639.245.057(=916.9)
639.2.057(=916.9)

Euskal baleazaleak

Berebiziko historia baten irudiak eta aztarnak

Balleneros vascos

Imágenes y vestigios de una historia singular

JOSÉ MARÍA UNSAIN AZPIROZ

U·M

UNTZI MUSEOA · MUSEO NAVAL
Donostia · San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



“La ballena representaba dinero, comida, sustento y comercio. Pero también significaba algo más oscuro, más metafísico, por virtud del hecho que los hombres se jugaban la vida para cazarla”

Philip Hoare, *Leviatán o la ballena*, 2010

“Si la pesca y comercio del bacalao fueron tan ventajosas en San Sebastián y restante Guipúzcoa, no lo fue menos la matanza de ballenas. Este monstruoso pez, a pesar de su enorme grandor y bravura, cedió al coraje de los vascongados, empeñados en perseguirle hasta en los más profundos senos y cavernas del imperio de los mares. (...)”.

Joaquín Antonio del Camino,
Historia de San Sebastián, c. 1794

“Después de todo, lo que enaltece hondo y ancho es la verdad, y no la leyenda y el mito. Siempre, por supuesto, pero mucho más cuando no son necesarios ni la leyenda ni el mito, porque la verdad es, en nuestro caso, larga, ancha y grande como una ola del Océano”

Mariano Ciriquiain-Gaiztarro,
Los vascos en la pesca de la ballena, 1961

Aurkibidea

Aurkezpena	10
Sarrera	12
1. Erdi Aroko lainoak	18
2. Balea arrantzaren garapena eta goren aldia XVI. mendean	26
3. Red Bay, ondare materialaren gordetegi nagusia	52
4. XVII. mendea. Nazioarteko lehia gogorra	64
5. XVIII. mendea. Gainbehera eta indarberritzeko azken ahaleginak	84
6. XIX. mendea. Iraganaren errainuak	102
7. XX. eta XXI. mendeak. Oroimenari eta imaginarioari eraginez	116
Bibliografia	170
Eskerrak	174

Índice

Presentación	11
Introducción	13
1. Brumas medievales	19
2. Desarrollo y auge ballenero en el siglo XVI	27
3. Red Bay, gran depósito del patrimonio material	53
4. Siglo XVII. La dura competencia internacional	65
5. El siglo XVIII. Declive y últimos intentos de reactivación	85
6. Siglo XIX. Reflejos del pasado	103
7. Siglos XX y XXI. Activando la memoria y el imaginario	117
Bibliografía	170
Agradecimientos	175

Aurkezpena

Untzi Museoak –Gipuzkoako Foru Aldundikoak– *Baleazaleak* izeneko erakusketa zabaldu zuen 2011ko apirilean. Erakusketa horrek balea arrantzaren iragana eta oraina ezagutarazten ditu, baina ikuspegi global batetik begiratuta, eta bereziki azpimarratuta euskaldunek jarduera horretan izan zuten parte-hartze handia. Nahiz eta balearen arrantzak Euskal Herriaren historian garrantzi handia izan, azpimarratzekoa da lehenengo aldiz eskaintzen dela erakusketa monografiko bat, gaiaren ikuspegi orokor bat ematen duena.

Orain aurkezten den liburua, haatik, ez da erakusketaren berdina, hein batean. Izan ere, euskal baleazaleen inguruan kontserbatu diren ikus-adierazpenen bilduma gisa planteatzen da. Bestelako erreferentziak ere aurkituko dira liburuan: batetik, eremu horrekin zerikusian gure egunetaraino iritsi diren kultura materialeko osagaiak; eta bestetik, askotariko arloak biltzen dituzten bestelako kultura-adierazpenak. Irakurle jakin-nahiak irudi sail handi bat edukiko du eskumenean: irudi asko, gainera, argitaragabeak, edo oso ezezagunak. Ondare hori egokiro dokumentatzea eta testuinguruan zuzen kokatzea: horra zer lortu nahi zen, besteak beste. Alabaina, liburuak ez die interesa sortuko gaian adituei bakarrik, zeren eta kontaketa irudidun atsegin bat sortzen baita, aldi berean zorrotza, honelako osagaiak konbinatuz: testuak, irudiak eta mapak. Hori dena lagungarri da euskal baleazaleen historia handiaren oinarritzko datuak jendarteratzeko.

Azkenik, gauza bat bakarrik: Museoari opatzea orain dela 21 urte hasitako bidetik jarrai dezan, ezin estimatzeko ekarpena egin baitie, bere jarduera horretan, Euskal Herriko itsas ondarearen ezagutzari, kontserbazioari eta zabalkundeari.

Ikerne Badiola Garciandia

Kultura, Gazteria eta Kiroleko Foru Diputatua

Presentación

Untzi Museoa, de la Diputación Foral de Gipuzkoa, inauguró en abril de 2011 la exposición titulada *Cazadores de ballenas*. La muestra da a conocer el pasado y el presente de la caza de la ballena desde una perspectiva global haciendo especial hincapié en la participación de los vascos en esa actividad. Pese a la relevancia que la caza de la ballena ha tenido en la historia vasca es de destacar que ésta es la primera vez que se ofrece una exposición monográfica que proporciona una visión general del tema.

El libro que ahora se presenta difiere de la exposición en alguna medida ya que se plantea como recopilación de las expresiones visuales conservadas en torno a los balleneros vascos. En el libro se encontrarán también referencias a los elementos de cultura material relacionados con ese ámbito que han llegado a nuestros días, así como a otro tipo de manifestaciones culturales que abarcan los campos más diversos. El lector interesado tendrá a su alcance un amplio repertorio de imágenes, muchas de ellas inéditas o muy poco conocidas. La correcta documentación y contextualización de este patrimonio ha sido uno de los objetivos perseguidos. Pero el libro no interesará únicamente a los especialistas en el tema ya que de la combinación de textos, imágenes y mapas surge un relato ilustrado, ameno y riguroso al mismo tiempo, que ayuda a divulgar los datos básicos de la gran historia ballenera de los vascos.

Sólo resta desear que el Museo continúe el camino iniciado hace 21 años en una actividad que ha supuesto una inestimable aportación al conocimiento, la conservación y la divulgación de la historia y el patrimonio marítimo vascos.

Ikerne Badiola Garciandia

Diputada Foral de Cultura, Juventud y Deporte

Sarrera

Lilura eta izularria. Aspaldidanik baleek aurrez aurreko sentipenak piztu zituzten beren tamaina eta jokaera enigmatikoa zirela eta. Antzinako beldurrak gainturik, gizakiek aurre egin zioten itsas munstroari, haren gantz, bizar eta hezurretatik onura atera nahiz. Lurreko izakirik handienari aurre egitera ausartu zirenen artean, Kantauri itsasoaren ekialdeko zerrendako arrantzale komunitateak nabarmendu ziren Erdi Arotik, besoaren indarrez jaurtiriko arpoi soilak erabiltzen zituztela. Zehazkiago, Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaiko itsasgizonak izan ziren balea harrapatzea eta haren produktuak lantzea eta merkaturatzea eskala handiko jarduera ekonomikoa bihurtu zutenak. Euskal baleazaleak ez ziren beren uretan lan egitera mugatu; izan ere, Kantauri itsasoan zehar Galiziaraino iritsi ziren, eta, Ipar Atlantikokoan zehar, Kanadako kostaldeetaraino, harrapaturiko baleen kopurua ugartzea lortzen zutela. Geroago, nazioarteko konkurrentziak hartaraturik, Artikoko uretan barneratu behar izan zuten eta Amerikako kostalde atlantikoaren hegoaldeko eskualdeetaraino iritsi ziren.



Portu edo Zarauz leinuko familiarena izan daiteken Getariako Erdi Aroko San Salvador elizako hilobi baten gainean aurki daiteken zizelkaturiko ezkutu baten zatia. Balea irudikatzen da bertan. Irudi hau familia heraldika batean agertzea salbuespentzat har daiteke.

Fragmento de escudo tallado sobre un sepulcro de la iglesia medieval de San Salvador de Getaria que pudo pertenecer al linaje de los Zarauz o los Puerto. Incluye la representación de una ballena, figura excepcional en heráldica familiar.

Aro Berrian balea populazioen gaineko jarduera horrek izan zuen eragin suntsitzaileria ez da ahaztekoa. Hala eta guztiz, garai hartan inork ez zuen gogoan itsas baliabideen hustiapenari mugak jartzeko beharra. Nolanahi ere, natura eta biodibertsitatearekiko begiruneak ez gaitu lehen garaietako baleazaleen historia arbuizatzea eraman behar. Itsasontzi, itsasketa eta arrantza kultura sendo batean oinarrituriko talde ahaleginen baturaren historia izan zen; ezagutu eta aintzat hartua izatea mezezi duen bizimolde gogor, arriskutsu eta berezi baten historia.

Historian euskaldunei nazioarteko ospea eman dieten itsas jardueretako bat izan da balearen ehiza. XVII. mendeko lehen hamarkadetaraino, euskal baleazaleak alor horretako espezialista nagusizat aitortu zituzten ingelesek zein holandarrek, eta haien prestigioa bizirik mantendu zen Ilustrazioaren garaietaraino zenbait obrari esker, hala nola Diderot eta d'Alemberten Entziklopedia edo Duhamel du Monceau-ren arrantza tratatu entzutetsua, nahiz horien aipamenak Ipar Euskal Herriko arrantzaleei mugaturik egon.

Erdi Arotik euskal itsasbazterreko udalerrri batzuen kontzeju zigiluek beren bizilagunen adorea eta ausardia aldarrikatu zuten. Balea harrapatzea errentagarritasun handiko jarduera ekonomikoa ez ezik, egintza gogoangarria ere bazen. Jarduera arriskutsu honen talde harrotasuna, XVI. mendean zehar hedatzen joan zen beraien harrapaketak Atlantikoaren beste aldean hasi zituztenean, Ternuan. Aro horretako toponimoak gaur egungo Kanadako Atlantikoko kostaldea, Ternuako irla

Introducción

Pavor y fascinación. Por sus dimensiones y enigmático comportamiento las ballenas suscitaron desde antiguo sensaciones encontradas. Superando temores ancestrales los seres humanos se enfrentaron al monstruo marino buscando el beneficio de su grasa, su carne, sus barbas y sus huesos. Entre quienes se atrevieron a enfrentarse a la mayor criatura del planeta con simples arpones lanzados a fuerza de brazo destacaron, desde la Edad Media, las comunidades de pescadores situadas en la franja oriental del mar Cantábrico. Más en concreto, fueron los mareantes de Labourd, Gipuzkoa y Bizkaia los primeros en hacer de la caza de la ballena y la elaboración y explotación comercial de los productos derivados una actividad económica a gran escala. Los balleneros vascos no se limitaron a efectuar su trabajo en aguas propias sino que se desplazaron por el Cantábrico hasta Galicia y por el Atlántico Norte hasta las costas de Canadá logrando multiplicar sus capturas. Más tarde, obligados por la competencia internacional, tuvieron que adentrarse en aguas del Ártico o viajar a zonas meridionales de la costa atlántica americana.

El impacto destructivo de esta actividad sobre las poblaciones de ballenas en la Edad Moderna no puede quedar en el olvido. Era, sin embargo, una época en la que nadie pensaba en la necesidad de poner límites a la explotación de los recursos marinos. En cualquier caso, el respeto a la naturaleza y la biodiversidad no puede llevarnos a desdeñar la historia de los cazadores de ballenas de los primeros tiempos. Fue la historia de una suma de esfuerzos grupales apoyados en una sólida cultura naval, marinera y pescadora; la historia de un modo de vida duro, peligroso y singular que merece ser conocido y valorado.

La caza de la ballena fue una de las actividades marineras que dieron a los vascos relieve histórico internacional. Hasta las primeras décadas del siglo XVII los balleneros vascos fueron reconocidos por los ingleses y los holandeses como máximos especialistas en la materia y su prestigio se mantuvo vivo hasta los tiempos de la Ilustración gracias a obras como la Enciclopedia de Diderot y d'Alembert o el célebre tratado de pesca de Duhamel du Monceau, aun cuando sus referencias se limitaran a los pescadores vasco-franceses.

Desde la Edad Media los sellos concejiles de algunos municipios costeros del litoral vasco pregonaron la audacia y el arrojo ballenero de sus vecinos. La caza de la ballena no era sólo una actividad económica de gran rentabilidad sino que representaba también un timbre de gloria. El sentimiento de orgullo colectivo derivado de esta arriesgada labor debió intensificarse en el siglo XVI cuando las capturas comenzaron a efectuarse al otro lado del Atlántico, en “Terranova”, término que designaba en la época el conjunto de la actual costa atlántica canadiense incluyendo la propia isla y el sur de Labrador. Exaltando la dimensión épica del oficio ballenero hasta entrar en los confines de la fabulación Cristóbal López de Zandategui y Luis Cruzat se expresaron de este modo en la introducción a la *Recopilación de leyes y ordenanzas de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa* (1583):

“Dejando el viaje de Indias y Levante, islas de Barlovento y otras navegaciones, cada año van de aquí muchas naos a Terranova, región frigidísima y septentrional, casi inhabitable por las muchas, continuas y grandes nieves y

eta Labradorreko hegoaldea biltzen zituen. Baleazalearen ofizioaren alderdi epikoa asmakeriaren eremuan sartzeraino goraiatzeko zutela, Cristobal Lopez de Zandategui eta Luis Cruzatek *Recopilación de leyes y ordenanzas de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa* (1583) bildumari egindako hitzaurrean ondokoa idatzi zuten:

“Indietarako eta Sortalderako bidaiak, Haizealdeko uharteetarakoak eta bes-telako nabigazioak alde batera utzirik, urtero hemendik ontzi asko abiatzen da Ternura; oso lurralde hotz eta iparrekoa da, eta ia-ia ez dago bertan bizi izaterik, elurrak eta izotzak etengabeak eta handiak direlako. Han, horiei guztiei eta itsaso erdian altxatzen diren izotz eta elur trinkozko mendi handi eta ugariak eragin diezaieketen beldurrari adore miragarriaz aurre eginik, balea asko eta asko akabatzen dituzte, horien aurkako borrokan kemen eta trebeziaz arituz, bere bizitza arrisku larrian jarriz hain animalia luzeen basatasunagatik (...), isatsaren aire hutsaz hiltzen baitira gizonak, eta isatsaz beraz, airea altxatu eta zatitu egiten ditu bera hiltzera doazen hamar edo hamabost gizoneko pinazak edo ontziak; eta nabigazio honen berri izan arren, eta bertatik ateratzen den probetxu handia agerikoa bada ere, bakar-bakarrik probintzia honetakoak ausartzen dira hartara joaten, ez ingurukorik ez beste inongo naziotakorik, eta baleak pertz handi batzuetan urtu eta lumera bihurtuta, urtero probintzia honetara ekartzen dituzte haritzezko barrika edo ontzietan, probetxu handikoak direlako, eta hauetatik hornitzen dira lumeraz Espainia, Frantzia, Flandes eta Ingalaterra gehiena. Urtero ere Ternuko lurralde ipartar horretarantz baina hegoalderagoxe eta mendebalderagoxe ontzi asko abiatzen dira, eta urtero bakailao asko ekartzen dute, eta hemendik Espainia osoa hornitzen da”. (jatorrizkotik itzulia)

Klima eta arriskuari buruzko gehiegikeriekin batera, testuan agerikoa den gipuzkoar esklusibismoak Lapurdiko portuen jarduera baleazale garrantzitsua alde batera uztera eramaten ditu, baita bizkaitarren eta kantabriarren parte hartzea ere –garrantzi gutxiagokoa baina aipatu beharrekoa–.

XVIII. mendearen erdialdean, euskal baleazaleen jardueraren azkenetan jadanik, Manuel Larramendi jesuitak kapitulu bat sartu zuen bere *Corografía*n gipuzkoar baleazalearen adorea gorestekeo. Egileak, bere begiez zetazeo bat harrapatzea ikusi bide zuenak, galdetzen dio bere buruari zer idatziko ote zuten greziarrek, edo Virgiliok berak, halako ikuskari bat bistaratuz gero:

“Gertuko portuetatik txalupatan irteten dira, eta armada bat ikartzeko adina litzatekeen animalia beldurrik izan gabe, haren bila doaz; itsasoan zirkulu handi bat eginez, txalupa gobernatzen dute besteek eta itsas kolpeetatik libratzen, eta txalupan arpoilari bihoztun eta trebe bat balea itsas azalera, kopetatik ur turrustak arnastu beharrez, noiz aterako zain, eta orduan arpoia indarrez botako dio, animalia puska hartan sartu, eta piztia zauriturik eta amorraturik, uretan behera egin eta itsaso handia kurritzen du, arpoilari loturiko soka erroilu asko darama, baita txalupa ere, ur gainean balearen atzetik


heladas, donde resistiendo con admirable ánimo a ellas y al temor grande que les podía causar sus muchas y grandes montañas de hielos y nieves cuajadas y levantadas en mitad de la mar, matan gran número de ballenas con gran peligro de sus personas por la ferocidad de ellas de tanta grandía que tienen de largo (...) peleando con ellas de tal manera que, esgrimiendo con la cola no se guardando con ánimo y presteza, con sólo el aire de ella mueren los hombres, y tocando con ella, levanta el aire y parte las pinazas o barcos con que las van a matar y anega con cada doce o quince hombres; a cuya causa con estar descubierta esta navegación y ser manifiesto el mucho provecho que de ella redunda, sólo los de esta provincia y no otros circunvecinos ni otra nación ninguna osan ir a ella y derritiéndola en grandes calderas convertida en grasa, las traen en cada año a esta provincia en barricas o vasijas de roble en gran sustento y utilidad de ella de donde se provee de grasa la mayor parte de España, Francia, Flandes, Inglaterra. También van cada año hacia la misma región septentrional de Terranova algo más a mediodía y poniendo muchas naos y traen cada año grande can-

tidade de abadejo [bacalao] del cual se provee de aquí toda España”.

Las desmesuras sobre el clima y el peligro van unidas en el texto a un exclusivismo guipuzcoano que les lleva a ignorar la importante actividad ballenera de los puertos del Labourd o la participación –menos relevante pero digna de mención– de los vizcainos y los cántabros.

A mediados del siglo XVIII, ya en el ocaso de la actividad ballenera vasca, el jesuita Manuel de Larramendi incluye en su *Corografía* un capítulo de enaltecimiento del temple del ballenero guipuzcoano. El autor, que al parecer vio con sus propios ojos la captura de un cetáceo, se pregunta qué es lo que hubieran escrito los griegos, o el propio Virgilio, a la vista de un espectáculo como éste:

“Salen de los puertos inmediatos en chalupas, y sin temor del bruto, que bastaría para asustar a un ejército, van a buscarlo; tomando un gran círculo de mar, gobiernan los demás la chalupa y libránla de los golpes del mar, y a su bordo un valiente y diestro arponero aguarda a que salga la ballena a la superficie a respirar arroyos de su frente, y entonces le dispara con esfuerzo el arpón,



Hondarribiko hiribilduaren armarría, 1503ko dokumentu baten gainean margotua (Errege Exekutoria, Hondarribiko Udal Artxiboa).

Escudo de la villa de Fuenterrabía (Hondarribia) pintado sobre un documento de 1503 (Real Ejecutoria, Archivo Municipal de Hondarribia).

doana, harik eta, odolusturik eta hilik, gora igoko den arte, eta, arrantzaleek, garaile, portura eramango dute. (...).” (jatorrizkotik itzulia)

Larramendik gehiegizko gorazarrearekin jarraitzen du: Neptuno haserre agertarazten du gipuzkoarren ausarkeriaren kariatz, nahiz, azkenean, nabari-nabaria denaren aurrean, amore emango duen, “erdijainko eta itsas heroi”-tzat hartzen dituela.

Mutur horretaraino iritsi gabe, Antonio Sañez Reguart, ilustratu katalana, arrantza kontuetan aditua, eskuzabal azaldu zen euskaldunen iragan baleazalea baloratzerakoan. Espainian zabalkunde nabarmena izan zuen haren *Diccionario Histórico de los Artes de la Pesca Nacional* (1791-95) obran, ondokoa irakur daiteke:

“Arpoia erabiliz arrain munstro horien harrapatze handiak lortzen dira, zeinetan gizakien ausardia erakustera ematen den: Euskal herrialdeentzat beti monumentu aintzagarrien printzipioa izango direnak ; (...).” (jatorrizkotik itzulia)

Literatura pasarte horiek, fantasia gutxi-asko handiz eta barne zein kanpo aldetik, euskal baleazalaren inguruan moldatuz joan zen imaginarioaren agergerri dira, Julio Caro Barojak ohartu bezala, “benetako izaki mitiko eta sinbolikoa” (*Los vascos y el mar*, 1985) ere egin zuten arte. Liburu honek gaiari buruzko literatura aipamen batzuk biltzen ditu, baina alor honetan sorturiko ikus ondarea bildu eta hari balioa ematea da liburuaren helburu nagusia. Erdi Aroan hasi eta gure menderaino doan denborazko ibilbide batean, liburuak, funtsean, euskal baleazaleen munduarekin zuzen edo zeharka loturiko irudien bilduma gisa planteatu da, nahiz, aldi berean, mundu horretaz kontserbaturiko arkeologia aztarnen erakuskari adierazgarria ere barne hartzen duen. Bilduma lan honetan ugari dira marrazkilari, margolari, eskultore, diseinatzaile grafiko, argazkilari eta artisauek egindako irudikapenak, nahiz lekua ere baden beste zenbait eratako adierazpideetarako: komikia, ikusentzunezko ekoizpenak, irudikatze museografikoak, antzezkiak, etab. Kultura adierazpen horien interesa dagokien ahalmenean datza, dokumentu historiko gisa edota oroi-
men eta imaginarioaren irudikapen eta esangura berritze gisa.

Aurkezturiko material heterogeneoak irakurleak dagokien testuinguruan jar ditzan argibide batzuk ematearren, kapituluak sarrera testu labur batzuekin zabaltzen dira; hala, batzuetan, horrek gaiari buruzko datu edo alderdi ezezagunak edo gutxi ezagunak hartzen ditu. Testu horiek batzuek eta aipaturiko iruditeriarekin eta dagozkien argazki oinekin artikulatzeak, gainera, liburuak gure baleazaleen historia zabaltzea du helburu, neurri batean bederen.

híncaselo en aquella mole formidable, y la bestia, herida y furiosa, se hunde y corre mucho mar, llevándose mucho rollo de cuerda atada al arpón, y también la chalupa, que sigue flotante a la ballena, hasta que, desangrada y muerta, sube arriba y la conducen victoriosos a su puerto. (...)”.

Larramendi prosigue el ditirambo mostrando a un Neptuno irritado por la osadía de los guipuzcoanos que, finalmente, se rendirá a la evidencia, reconociéndoles como “semidioses y héroes de los mares”.

Sin llegar a estos extremos, Antonio Sáñez Reguart, ilustrado catalán, experto en temas pesqueros, se mostró generoso a la hora de valorar el pasado ballenero de los vascos. En su *Diccionario Histórico de los Artes de la Pesca Nacional* (1791-95), obra que tuvo una amplia difusión en España, puede leerse:

“Con el Harpon se logran aquellas grandes pesqueras de peces monstruosos, en que el atrevimiento humano hace alarde de sí mismo: aquellas, cuyo principio será siempre un monumento glorioso para los países *Bascongados*; (...)”

Sirvan estos fragmentos literarios como exponente del imaginario que con mayor o menor grado de fantasía se fue forjando, desde dentro y desde fuera del país, en torno al ballenero vasco hasta hacer de él, tal como observó Julio Caro Baroja, un “verdadero ser mítico y simbólico” (*Los*


vascos y el mar, 1985). El presente libro incluye algunas alusiones a la literatura existente sobre el tema, pero el objetivo principal del mismo es la recopilación y revalorización del patrimonio visual generado en este ámbito. En un recorrido temporal que se inicia en la Edad Media y llega hasta el siglo actual, el libro se plantea fundamentalmente como compendio de imágenes directa o indirectamente relacionadas con el mundo ballenero vasco, aunque también incluye una muestra significativa de los vestigios arqueológicos conservados sobre el mismo. Abundan en este trabajo recopilatorio las representaciones elaboradas por dibujantes, pintores, escultores, diseñadores gráficos, fotógrafos y artesanos, aunque también hay espacio para otro tipo de expresiones: cómic, producciones audiovisuales, representaciones museográficas, escenificaciones teatralizadas, etc. El interés de estas manifestaciones culturales se encuentra en su potencial como documento histórico y/o como representación y resignificación de la memoria y el imaginario.

Con objeto de proporcionar al lector algunas pistas para contextualizar los heterogéneos materiales presentados, los diferentes capítulos se abren con breves textos introductorios que en algunos casos incluyen datos o aspectos inéditos o poco conocidos sobre el tema. La suma y articulación de estos textos con el aparato gráfico mencionado y los pies de foto correspondientes, aspiran a conseguir, por añadidura, que el libro contribuya, en alguna medida, a la divulgación de nuestra historia ballenera.

1. Erdi Aroko lainoak

Goi Erdi Aroko dokumenturen batek Akitaniako kostaldea aipatzen badu ere, Europan baleak harrapatzeari buruzko aipamen zaharrenetarik gehienak eskandinaviar kultura munduari loturik daude. Eragin eremu horretan kokatu beharko litzateke IX. mendearen inguruko baleazaleen jarduera Normandia aldean.

Kantauri itsasoko balearen ehizari buruzko dokumenturik zaharrenek XII. mendearen amaierara garamatzate, nahiz 1059ko aipamenean bat badagoen Baionako merkatuan balearen produktu eratorriak saltzeari buruzkoa. Baina Europan balearen inguruko jarduera ez zen Bizkaiko Golkora edo Iparraldeko itsasoetara mugatu. Oraintsuko ikerketa batek, hain zuzen ere, Portugalgo itsasbaterrean XIII. mendetik egiten zen balearen arrantzari buruzko datuak ekarri ditu. Nolanahi ere, normandiar eta portugaldar arrantzaleek balearen inguruan gauzaturiko jarduera nork bere eskualdeko itsasbatteraren eremura mugaturik egon bide zen. Euskal arrantzaleak, aldiz, lehenengoak izango ziren balearen ehiza eskala handian antolatutako jarduera bilakatzen, zeinak harrapatzeko leku berriak esploratzea, produktu eratorriak lantzea eta horiek Europan merkaturatzea barne hartzen zituen.



Euskal baleazaleen Galiziako kokalekuak
Erdi Aroan (XIII.-XV. mendeak).
Iturria: Felipe Valdes Hansen.

Establecimientos medievales de los
balleneros vascos en Galicia (siglos XIII-XV).
Fuente: Felipe Valdés Hansen.

Gipuzkoa eta Bizkaiko arrantzaleek, hasieran, soil-soilik oso gertuko uretan harrapatu zituzten baleak, beren portuen bistara, baina arian-arian, Gaztelako koroaren babesla zutela, Kantauri itsasoan zehar joan eta Asturias eta Galiziaraino iritsi ziren, non XIII. mendetik babesleku naturalak erabili zituzten ontziak ainguratzeko eta faktoria txikiak ezartzeko. Euskal Herriko itsasbatterean eta, geroago, Kanadan bezala, balearen arrantza portuetatik hurbil gauzatzen zen, egiteko hartan itsasontzi txikiak erabiltzen zituzten eta sokei loturiko arpoiak. Jarduera hura zela eta, errenta zergak ordaintzen bazituzten ere, euskaldunek lumeratik, balea bizarretatik eta haragitik lorturiko etekinak kontuan hartzeko modukoak ziren. Galiziako arrantzaleek XVI. mendera arte ez zioten zuzen ekin balearen arrantzari.

Erdi Aroko balea harrapatzeari buruzko material ikonografikoei dagokionez, nabarmentzekoa da Hondarribia (1297), Bermeo (1297) eta Miarritzeko (1351) kontzejuetako zigiluek osatzen dutela Europan gai honetaz kontserbatzen den irudikapen multzorik zaharrena.

1. Brumas medievales

Aunque algún documento de época altomedieval nos acerca a las costas de Aquitania, la mayor parte de las referencias más antiguas sobre la captura de ballenas en Europa se vincula al mundo cultural escandinavo. En ese ámbito de influencia se situaría la actividad ballenera en Normandía en torno al siglo IX.

Los más viejos documentos sobre la caza de la ballena en el Cantábrico son de finales del siglo XII, si bien existe alguna referencia de venta de productos derivados de la ballena en el mercado de Bayona de 1059. Pero la actividad ballenera europea no estuvo limitada al Golfo de Bizkaia o a los mares del Norte. Una investigación reciente aporta datos de balleneo en el litoral portugués desde el siglo XIII. En cualquier caso parece que la actividad ballenera de los pescadores normandos y portugueses estuvo muy ceñida a su ámbito costero regional, mientras que los pescadores vascos serían los primeros en hacer de la caza de la ballena una actividad organizada a gran escala, no limitada al propio espacio litoral, que incluía la elaboración de los productos derivados y su comercialización en Europa.


Inicialmente los pescadores de Gipuzkoa y Bizkaia cazaron ballenas exclusivamente en aguas muy cercanas, a la vista de sus puertos, pero progresivamente, contando con el apoyo de la Corona castellana, fueron desplazándose por el Cantábrico

hasta llegar a Asturias y Galicia donde utilizaron desde el siglo XIII los abrigos naturales para fondear sus embarcaciones e instalar pequeñas factorías. Como en el litoral vasco, y más tarde en Canadá, la caza de la ballena se efectuaba en las cercanías de los puertos empleando pequeñas embarcaciones y arpones sujetos a estachas (cuerdas). Los vascos pagaban derechos de arrendamiento por su actividad pero los beneficios obtenidos por la grasa, las barbas y la carne de ballena fueron considerables. Los pescadores gallegos no se involucraron directamente en la caza de la ballena hasta el siglo XVI.

En cuanto a los materiales iconográficos medievales referentes a la caza de la ballena, es de destacar que los sellos concejiles de Hondarribia (1297), Bermeo (1297) y Biarritz (1351) constituyen el más antiguo conjunto de representaciones sobre el tema que se conserva en Europa.

Balearen arrantzari buruzko erreferentzia dokumentalak ekialdeko Kantauri itsasoari dagokionez. Iturria: J. Gracia Cárcamo eta R. Gonzalez Echegaray.

Referencias documentales sobre la caza de la ballena en el Cantábrico oriental. Fuente: J. Gracia Cárcamo y R. González Echegaray.





Jonas, baleak irentsia eta egotzia. *Iruñeko lehen Biblia* esaten diotenaren miniatura batzuk. Nafarroako Santxo VII.a, Azkarraren aginduz, Fernando Perez de Funesek egin zuen bere eskuz (1197an amaitua). Amiens-eko (Frantziako) Udal Liburutegia.

Jonás tragado y expulsado por la ballena. Miniaturas que forman parte de la denominada *Biblia primera de Pamplona*, obra manuscrita realizada por Fernando Pérez de Funes por encargo del monarca navarro Sancho VII, el Fuerte, que fue finalizada en 1197. Biblioteca Municipal de Amiens (Francia).



Balea baraila baten zatia, Zarautz jauregiko (Getaria) lur azpian aurkitua Erdi Aroko estratu batean (Gipuzkoako Arkeologia Biltegia, Donostia). Ageri dituen ganibet ebakiek gizakiek erabilia dela erakusten dute. Aztarnategi bereko balea hezur hau eta beste batzuk IX. mendekotzat hartu ziren hasieran, baina datazio hori berretsi gabe dago.

Fragmento de mandíbula de una ballena localizada en Getaria, en el subsuelo del palacio Zarautz, en un estrato de época medieval (Depósito Arqueológico de Gipuzkoa, San Sebastián). Muestra cortes de cuchillo que ponen de manifiesto la manipulación humana. Éste y otros huesos de ballena del mismo yacimiento fueron considerados inicialmente del siglo IX, pero la datación está pendiente de ser confirmada.



Hondarribiko kontzejuaren zigiluaren aurkia, Frantziako Artxibo Nazionaletan (Paris) kontserbatua. 1297ko pergamino batetik zintzilik dago eta balea arpoiaz jotzea ekintzaren irudikapen zaharrena da Europan. Argazkia: Frantziako Artxibo Nazionalak.

Anverso del sello de cera del concejo de Hondarribia (Fuenterrabía) conservado en los Archivos Nacionales de Francia, París. Pende de un pergamino fechado en 1297 y viene a ser la más antigua representación de arponeo de ballena conservada en Europa. Foto Archivos Nacionales de Francia.



1297ko Hondarribiko zigiluaren markaren kopia, Frantziako Artxibo Nazionalak (Paris) emana, 1990 i. (Untzi Museoa bilduma). Argazki erreprodukzio honetan arpoiak eta guztiz goranzko branka bular bikoitza duen ontzi bat ikusten dira zehatz-mehatz.

Copia de la impronta del sello de Hondarribia de 1297 suministrada por los Archivos Nacionales de Francia, París, c. 1990 (colección Untzi Museoa). En esta reproducción fotográfica se aprecian, con mayor detalle, los arpones y la forma de la embarcación con doble roda muy lanzada hacia arriba.



Bermeoko kontzejuaren zigiluaren aurkia, Nafarroako Artxibo Nagusian kontserbatua (Kontu Saila, Iruñea), 1297.

Anverso del sello del concejo de Bermeo conservado en el Archivo General de Navarra (Sección de Comptos, Pamplona), 1297.



Miarritzeko kontzejuaren zigiluaren aurkia, 1351ko dokumentu batean zintzilik dagoena. Iparraldeko Departamenduko Artxiboa, Lille (Frantzia).

Anverso del sello de cera del concejo de Biarritz que pende de un documento fechado en 1351. Archivo Departamental del Norte, Lille (Francia).




Irudi hauek (ezkerretik eskuinera) Bermeo, Lekeitio eta Castro Urdialeseko Erdi Aroko zigiluak irudikatzen dituzten marrazki gisa argitaratu dira askotan. Hala ere, egiatan, geroagoko garaietako erreferentzia heraldikoetan oinarrituriko interpretazio askeak dira. Rafael Monleón, itsas gaietako marrazkilaria eta pintoreak ondu zituen eta C. Fernandez Duro-ren *La Marina de Castilla* (Madril, 1893) argitaratu ziren lehen aldiz.

Repetidamente publicados como dibujos que reproducen sellos medievales de Bermeo, Lekeitio y Castro Urdiales (de izquierda a derecha), son en realidad interpretaciones libres basadas en referencias heráldicas de épocas posteriores. Fueron realizados por el dibujante y pintor de temas navales Rafael Monleón y se publicaron por primera vez en la monografía de C. Fernández Duro, *La Marina de Castilla*, Madrid, 1893.



Mecia de Viladestes-en portulanoko miniatura honetan, balearekin batera, tamaina oneko itsasontzi bat ageri da, haren ondoan txikiago beste bat dagoela. 1413an egindako Mallorkako eskolako kartografia obra honetan Europa, Asia eta Afrikako iparraldeko kostaldeak irudikatu dira, eta balearen inguruko eszena hau Atlantikoko guztiz iparraldeko eskualde batean kokaturik dago. Autore batzuen interpretazioaren arabera, Kantauriko baleazaleak latitude horietan zebiltzala adierazten du irudiak, baina ezin segurtatu hala denik. Frantziako Liburutegi Nazionala, Paris.

Miniatura del portulano de Mecia de Viladestes en la que aparecen representadas, junto a una ballena, una nave y una embarcación menor. En esta obra cartográfica de escuela mallorquina, realizada en 1413, que recoge las costas de Europa, Asia y norte de África, la mencionada escena ballenera se emplaza en una zona muy septentrional del Atlántico. Algunos autores la han interpretado como imagen alusiva a la presencia de balleneros del Cantábrico en esas latitudes, pero no puede asegurarse que sea así. Biblioteca Nacional de Francia, París.



Hondarribiko Done Pedro Itsasgizonen Kofradiako estandartea. Gaur egun, Hondarribiko Itsasgizonen (arrantzaleen) Kofradian kontserbatzen den bandera honek errege koroaz zigilaturiko armari bat erakusten du, balea harrapatzea irudikatzen duena. Brodaturiko armariak gaur egungo ukituak agertzen ditu, baina Iñigo Hidalgo arte historialariaren ustez, erdiko konposizioa (fantasiazko ezaugarriak duen balea bat harrapatzeko eszena) XV. mendekoa izan liteke. Lore markoa eta koroa XVI. mendeko edo geroxeagoko aldi bateko eranskina izango lirateke; hondoko ehun gorria, zalantzarik gabe, berriagoa da.

Estandarte de la Cofradía de Mareantes de San Pedro (Hondarribia). Esta bandera, que actualmente se conserva en la Cofradía de pescadores de Hondarribia, muestra un escudo con representación ballenera timbrado con la corona real. El escudo bordado presenta retoques contemporáneos, pero en opinión del historiador del arte Iñigo Hidalgo, la composición central (escena de captura de una ballena de rasgos fantásticos) podría remontarse al siglo XV. El marco floral y la corona serían un añadido del siglo XVI o de época algo posterior, mientras que la tela roja de fondo es, sin duda, más reciente.



Aurreko orrian ageri den Hondarribiko Done Pedro Itsasgizonen Kofradiako estandartearen zehaztasuna.

Detalle del estandarte de la Cofradía de Mareantes de San Pedro (Hondarribia) que se reproduce en la página anterior.

2. Balea arrantzaren garapena eta goren aldia XVI. mendean

XVI. mendearen bigarren hamarkadan arrantzale portugaldar, normandiar eta bretainiarrak hasi ziren Kanadako kostalde atlantikora joaten, bakailao arrantzagune aberatsek erakarririk. Euskaldunek horien arrastotik joango ziren, baita ohartu ere, bakailaoez gainera, balea ugari zegoela ur haietan. Euskaldunek Kantauri itsasoan zehar balea harrapatzen jarraitu zuten mende honetan, baina Kanadara bakailao eta balea bila egindako espedizioek jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa ekarri zuten, horien garapenak eta errentagarritasunak bai kapitalak eta bai ontzi eta pertsona kopuru handia mugiarazten zituela. XVI. mendeko euskal baleazaleak lumera hornitzaile nagusiak ziren Europako merkatuetan –ia-ia horren monopolioa zutela–. Produktu horrek tira handia zuen, besteak beste, argiztapenean eta xaboiak, ehungintza produktuak eta botikak egiteko erabiltzen baitzen. Balea bizarrak ere merkaturatzen ziren (ganibet giderrak egiteko, adibidez); XVII. mendean areagotu egingo zen produktu horren eskaria, lumeraren balioarekin parekatzen zela.



Zarauzko Azara kaleko ateburuaren xehetasuna. XVI. mendea.

Detalle del dintel de la calle Azara de Zarautz. Siglo XVI.

Gipuzkoa eta Lapurdiko ontzizabe, merkataria eta marinela protagonista nagusiak izan ziren Ternua, Labrador eta San Lorentzo golkoan euskaldunek erabilitako balea eta bakailao arrantzaletan, bizkaitarrek ere haietan parte hartu bazuten ere. Bilbo, Gasteiz eta Bordelek, batez ere, finantza eginkizuna bete zuten. Burgosko aseguru egileek ere eginkizun garrantzitsua izan zuten horretan guztian.

Itsasoaz bestaldean euskaldunek balea harrapatzeko jardueraren gorenaldian, 1560 eta 1570eko hamarkadetan, urtero 30 ontzi itsasoratu bide ziren Gipuzkoa eta Bizkaitik –Selma Huxley eta Michael Barkham-en kalkuluen arabera–. Urtero 400 zetazeo inguru hiltzen zituzten, zeinek, gutxi gorabehera, 20.000 lumera upel ematen zituzten. Handik itzultzean, baleontzi batzuek Kanadatik zuzenean Bristol, Southampton, Londres, Anberes, Rouen, Arroxela, Bordele edo Lisboa jotzen zuten, baina gehienak euskal portuetara itzultzen ziren salgai balioitsu hura deskargatu eta ondoren merkaturatzearren.

Kantauri aldean bezala, iparraldeko euskal balea (*eubalaena glacialis*) ehizaren helburua izan zen Kanadako kostaldean ere, baina era berean ur haietan Groenlandiako balea (*balaena mysticetus*), aurrekoaren familiakoa izanik ere euskalduentzat zetazeo ezezaguna zena, harrapakin gutiziatua bilakatu zen.

Kronikagile batzuek balea harrapatzeko lanaren arriskugarritasuna puzteko joera izango zuten, bai, baina, edonola ere, zeregin arriskutsua zen zalantzarik gabe. Ar-

2. Desarrollo y auge ballenero en el siglo XVI

A comienzos del siglo XVI los ricos caladeros de bacalao de la costa atlántica de Canadá se convierten en foco de atracción para los pescadores portugueses, normandos y bretones. Los vascos seguirán su estela descubriendo que en aquellas aguas además del bacalao abundaban las ballenas. La actividad ballenera vasca a lo largo del Cantábrico se mantiene en ese siglo, pero las expediciones a Canadá en busca de bacalao y ballena supondrán un salto cuantitativo y cualitativo que moviliza capitales y gran número de barcos y personas. En el siglo XVI los balleneros vascos hegemonizan –rozando el monopolio– el suministro de aceite de ballena en los mercados europeos, producto cotizado que, entre otros usos, se empleaba en la iluminación y la fabricación de jabones, productos textiles y medicinas. Las barbas de ballena también se comercializan (para la elaboración de mangos de cuchillos, por ejemplo) pero fue en torno al 1600 cuando se incrementó la demanda de este producto equiparándose en valor con el aceite.

Las pesquerías vascas de la ballena y el bacalao en Terranova, Labrador y golfo de San Lorenzo tuvieron por principales protagonistas a los navieros, armadores, comerciantes y marineros guipuzcoanos y labortanos aunque los vizcainos también tomaron parte en ellas. Bilbao, Vitoria y Burdeos jugaron sobre todo un papel financiero. Los aseguradores de Burgos desempeñaron asimismo una importante función.

Durante el apogeo del balleneo vasco en ultramar que tuvo lugar en las décadas de 1560 y 1570, zarparon anualmente –según estimaciones de Selma Huxley y Michael Barkham– unas 30 naos llevando

alrededor de 2.000 personas (hombres y mozos), en expediciones que podían durar ocho o nueve meses. Anualmente se mataban unos 400 cetáceos que producían aproximadamente 20.000 barricas de aceite. De regreso, algunas naos balleneras se dirigían desde Canadá directamente a Bristol, Southampton, Londres, Amberes, Rouen, La Rochelle, Burdeos o Lisboa, pero la mayoría regresaba a puertos vascos para la descarga y posterior comercialización de la valiosa mercancía.

Al igual que en el Cantábrico la ballena franca septentrional (*eubalaena glacialis*) se convirtió en objetivo de caza en las costas canadienses, pero también fue presa codiciada en aquellas aguas la ballena de Groenlandia (*balaena mysticetus*), cetáceo desconocido para los vascos aunque ambos pertenecían a la familia de las ballenas francas.

Algunos cronistas tendieron a exagerar los peligros de la caza de la ballena, pero no cabe duda de que se trataba de una actividad arriesgada. La aproximación a la ballena durante la operación de arponeo suponía exponerse a la posibilidad de que la tripulación o la embarcación se vieran afectadas por los golpes de su poderosa aleta caudal. A los riesgos de accidentes y naufragios propios de las navegaciones transoceánicas se sumaban los derivados del duro clima que había que afrontar en época invernal. Se corría además el peligro de quedar atrapados por el hielo antes de iniciar el regreso. Algunas tripulaciones se vieron obligadas a pasar el invierno sin estar equipadas para ello. Especialmente trágica fue la invernada de 1576 que trajo consigo la muerte de más de 300 balleneros.

poitzeko ekintzan, balearengana hurbildu beharrez, baleak ontzia edo eskifaia isatsarekin jotzeko arrisku handia zegoen. Ozeanoan zeharreko nabigazioak berez arrisku handia zekarren, istripuak edukitzeko edo, are, hondaratzeko ere. Horrez gain, neguan izaten zen eguraldi latza jasan behar izaten zuten baleazaleek, eta itzulerari ekin aurretik izotzak harrapatuak gelditzeko arriskua ere izaten zuten. Eskifai batzuk negua bertan ematera beharturik gertatu ziren, hartarako premia-premiazko jantziak eta materialak izan gabe. 1576ko negualdia bereziki tragikoa izan zen, 300 baleazale baino gehiagoren heriotza eragin baitzuen.

Zatikatzailen lana ere arriskutsua zen, balea beraren gainean hainbat gizonen batera lan egiten baitzuten, ebakitzeko oso tresna zorrotzak erabiliz. Labeetan, berriz, kobrezko pertz handitan gantza urtzeko lana oso lanaldi luze eta osasungaitzetan egiten zen, kirats handiak jasanez.

Indigenekiko harremana ez zen gatazkatsuegi gertatu. Haietako batzuekin, hala nola innu-ekin, “menditarrak” esaten zietenekin, elkarlanean jardutera iritsi ziren, baina liskar armatuak ere izan ziren, bereziki inuitekin, bi aldeetan hilak eragin zituztenak.



XVI. mendean euskaldunek arrantza ahaleginak egin zituzten eremua. Baleazaleen kokalekuak gorritz markaturik ageri dira ustiapen gune nagusia izan zen Belle Isleko itsasartean. Beltzez, mende horren amaieran finkatu ziren baleazaleen urtaroko beste kokaleku batzuk ageri dira. Iturria: S. Huxley eta M. Barkham.

Área geográfica en el que se volcó el esfuerzo pesquero transatlántico (ballenero y bacaladero) de los vascos en el siglo XVI. Se señalan en rojo las estaciones balleneras ubicadas en el estrecho de Belle Isle, principal zona de explotación. En negro se indican otras bases estacionales balleneras que se establecieron a finales de ese siglo. Fuente: S. Huxley y M. Barkham.

Cartel editado en 1998 por Parks Canada, organismo federal canadiense, para divulgar la excavación arqueológica del pecio hallado en 1978 en Red Bay (Labrador). Colección Untzi Museoa. La importancia patrimonial del yacimiento terrestre y subacuático de Red Bay hizo que en 1979 fuera designado Sitio Histórico Nacional de Canadá. En la actualidad el gobierno canadiense trata de conseguir que este antiguo enclave ballenero vasco sea declarado Patrimonio de la Humanidad por la Unesco.



Parks Canadako arkeologoa Red Bayko pezioaren kroskoa aztertzen. Argazkia: D. Page, Parks Canada.

Arqueólogo de Parks Canada inspeccionando el casco del pecio de Red Bay. Foto D. Page, Parks Canada.




Itsasontziaren hondakinen planimetria, kroskoaren barnealdea induskatu ondoren. Marrazkia: P. Waddell eta grafista taldea, Parks Canada.

Planimetría de los restos de la nao tras la excavación del interior del casco. Dibujo: P. Waddell y equipo de grafistas de Parks Canada.




Itsasontziaren kroskoaren hondakinak berrosatzen dituen modeloa, Parks Canadak egindako ikerlanean oinarriturik. Eskala handiko (1:4) modelo hau Sevillako Erakusketa Unibertsaleko (1992) Euskal Pabiloirako egin zuten. Geroago Untzi Museoko bildumen osagai bilakatu zen. Irudian, Museoak 2011n antolatutako "Balezaleak" erakusketan integraturik agertzen da.

Modelo que reconstruye los restos del casco de la nao a partir del estudio realizado por Parks Canada. Este modelo a gran escala (1:4), fue construido para el pabellón vasco de la Exposición Universal de Sevilla (1992). Posteriormente pasó a formar parte de las colecciones del Untzi Museoa. La imagen muestra el modelo integrado en la exposición "Cazadores de ballenas" organizada por el museo en 2011.



Itsasontziaren luzetarako ebakidura, ustezko upel kargaren kokaera erakusten duena. Ontzia hondoratu zen unean, itzulerako ibilaldirako prest zegoela, mila lumera upel inguru zeraman. Marrazkia: D. Kappler, Parks Canada.

Corte longitudinal de la nao mostrando una hipotética disposición de la carga de barricas. En el momento en que se produjo el hundimiento, la embarcación, ya lista para la travesía de vuelta, portaba unas mil barricas de aceite de ballena. Dibujo: D. Kappler, Parks Canada.




Red Bayn induskaturiko ontziaren profilaren berregite hipotetiko. Marrazkia: C. Piper (Parks Canada). Parks Canadako ikertzaileen kalkuluen arabera, induskaturiko ontzia 200 tona ingurukoa zen, eta hiru gainalde eta hiru masta zituen. Haren neurriak: 22 metro luze gehienez, 7,56 metro zabal eta 4,01 metro garai. Atlantikoaz bestaldeko arrantzaguneetan erabilitako baleontzi txikienetako bat izan behar zuen; handienek 700 tona hartzen zituzten eta 33 metro inguru luze ziren.

Reconstrucción conjetural del perfil de la nao excavada en Red Bay. Dibujo: C. Piper (Parks Canada). Según cálculos de los investigadores de Parks Canada, la nao excavada tenía unas 200 toneladas, tres cubiertas y tres mástiles. Sus medidas eran: eslora máxima 22 m., manga 7,56 m. y puntal 4,01 m. Se trataría de una de las naos balleneras de menor porte de las empleadas en las pesquerías transatlánticas; las mayores alcanzaban 700 toneladas y unos 33 metros de eslora.





Red Bay Gune Historiko Nazionalen ikusgai dagoen Red Bayko ontziaren modelo hipotetikoaren bi alderdi. Fred Wethermanek egin zuen 2000an, Parks Canadako teknikarien aginduei jarraiki. Argazkiak: Cindy Gibbons eta Michael Barkham (ezk. eta esk., hurrenez hurren).

Dos aspectos del modelo conjetural de la nao ballenera que se expone en el museo del Sitio Histórico Nacional de Red Bay. Fue construido por Fred Wetherman en 2000 siguiendo las directices de los técnicos de Parks Canada. Fotos de Cindy Gibbons y Michael Barkham (izda. y dcha., respectivamente).




Red Bayn aurkituriko txalupen arteko osoenaren hondakinen planimetria. Marrazkia: J. Farley, Parks Canada.

Planimetría de los restos de la chalupa más completa de las que se localizaron en Red Bay. Dibujo: J. Farley, Parks Canada.




Txaluparen planoak, goian ikusten diren hondakinen elkarretaratzean oinarriturik. Marrazkia: C. Piper, Parks Canada.

Planos de la chalupa a partir del ensamblaje de los restos que se observan arriba. Dibujo: C. Piper, Parks Canada.



Red Bayn induskatutako itsasontziaren txopako gazteluko xafila bateko marrazkiaren kalkoa. Bertan itsasontzia ikus daiteke, txalupa bat ondoan duelarik. Parks Canada.

Calco del dibujo inciso localizado en una plancha del castillo de popa de la nao excavada de Red Bay. Se observa en él una nave junto a una chalupa. Parks Canada.



XVI. mendeko balea harrapatzeko txalupa (Red Bay Gune Historiko Nazionalako Museoa). Red Bayn aurkituriko hondakinen elkarretartzean oinarriturik egina. Argazkia: Parks Canada. Txaluparen ezaugarria: kroskoaren goiko oholak teilakaturik izatea (*tingladillo* izeneko teknika), azpiko oholta ertza ertzaren kontra mihiztaturik zegoela (*tope* moduan). Arraunez eta oihalez bulkaturiko ontzi mota horrek (bi masta) balea harrapatzeko balio zuen, baita bakailoa eta bestelako espezieak arrantzatzeko ere. Argazkia: Parks Canada.

Chalupa ballenera del siglo XVI (museo del Sitio Histórico Nacional de Red Bay). Reconstrucción a partir del ensamblaje de los restos localizados en la bahía de Red Bay. Foto Parks Canada. La chalupa se caracteriza por llevar las planchas o tablas superiores del casco solapadas (técnica denominada a *tingladillo*) mientras que la tablazón que iba por debajo estaba ensamblada borde contra borde (a *tope*). Este tipo de embarcaciones, propulsadas a remo y vela (dos mástiles), servían para la caza de la ballena y también para la pesca del bacalao y otras especies. Foto Parks Canada.



Arpoi muturra, Saddle uharteko (Red Bay) lehorreko indusketan aurkitua. Canadian Conservation Institute (Ottawa).

Punta de arpón localizada en la excavación terrestre de la isla Saddle (Red Bay). Canadian Conservation Institute (Ottawa).



Red Bayko pezioaren indusketan aurkituriko astrolabio zatiak (Red Bay Gune Historiko Nazionaleko Museoa). Argazkia: G. Vandervlugt, Parks Canada.

Fragmentos del astrolabio hallado durante la excavación del pecio de Red Bay (Museo del Sitio Histórico Nacional de Red Bay). Fotografía: G. Vandervlugt, Parks Canada.



Artilezko alkandora baten hondakinak, Saddle uharteko (Red Bay) hilobi batean aurkituak. Red Bay Gune Historiko Nazionaleko Museoa. Argazkia: Parks Canada.

Restos de una camisa de lana localizados en una sepultura de la isla Saddle (Red Bay). Museo del Sitio Histórico Nacional de Red Bay. Foto Parks Canada.



Aztarnategian aurkituriko oinetakoen lagin bat. Argazkia: R. Chan, Parks Canada.

Una de las numerosas piezas de calzado localizadas en el yacimiento. Fotografía: R. Chan, Parks Canada.



Red Bay Gune Historiko Nazionaleko museoko erakustaltzariek objektu mota ugari dituzte ikusgai. Argazkiak: Michael Barkham eta Cindy Gibbons.

Expositores del museo del Sitio Histórico Nacional de Red Bay que muestran una amplia variedad objetos. Fotos: Michael Barkham y Cindy Gibbons.



Red Bayko aztarnategiko zeramikak
(Red Bay Gune Historiko
Nazionaleko Museoa).

Cerámicas del yacimiento de Red
Bay (Museo del Sitio Histórico
Nacional de Red Bay).



Itsasontziaren xukatzeko ponparen (ezk.)
eta dibidietaren (esk.) hondakinak. Red
Bay Gune Historiko Nazionaleko Museoa.

Restos de la bomba de achique (izda.) y
del cabrestante de la nao (dcha.) Museo
del Sitio Histórico Nacional de Red Bay.



Saddle Island (Red Bay, Labrador) uharteko hilobi kolektiboa. Argazkia: Ternuako Memorial Unibertsitatea, St. John's. Baleazaleen faktoretan klima gogorrari aurre egin behar zioten negualdian eta, gainera, itzulerako bidaiari ekin aurretik izotzak harrapatuak gelditzeko arriskua zegoen. Eskifai batzuk negua han ematera beharturik gertatu ziren, hartarako premiazko gaiak izan gabe. 1576ko negualdia bereziki tragikoa izan zen, 300 baleazale baino gehiagoren heriotza eragin baitzuen.

Enterramiento colectivo en isla Saddle (Red Bay, Labrador). Foto Universidad Memorial de Terranova, St. John's. En las factorías balleneras se afrontaba un duro clima en la época invernal y se corría además el peligro de quedar bloqueados por el hielo antes de iniciar el regreso. Algunas tripulaciones se vieron obligadas a pasar el invierno sin estar preparadas para ello. Particularmente trágica fue la invernada de 1576 que trajo consigo la muerte de más de 300 balleneros.



Bular gainean gurutze bat duen baleazale baten hilobia, Saddle uhartean (Red Bay) aurkitua. Argazkia: Ternuako Memorial Unibertsitatea, St. John's. Red Bayn aurkituriko gorpuzkietako parte handi bat duela hogeita gehiago urte pilaturik dago Ternuako Memorial Unibertsitateko (St. John's) gela bateko apaletan. 2004an, Untzi Museoak, euskal arrantzaleen kofradien federazioak eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako hainbat kultura erakunderen arduradunek babesturik, idazki bat bidali zion Ternua eta Labradorreko Kultura Ministeritzari eskatzen ziola, behin giza gorpuzkinekin ikerketa amaiturik, Red Bayra itzul zitezen duintasunez ehortzi ahal izateko. Idazki horri emandako erantzun ofiziala ez zen inola ere asegarri izan.

Tumba de un ballenero con una cruz sobre el pecho hallada en la isla Saddle (Red Bay). Foto Universidad Memorial de Terranova, St. John's. Parte importante de los restos humanos hallados en Red Bay se encuentra desde hace más de 20 años apilada en las estanterías de una dependencia de la Universidad Memorial de Terranova (St. John's). En 2004 el Untzi Museoa dirigió al Ministerio de Cultura de Terranova y Labrador un escrito apoyado por la federación de las cofradías vascas de pescadores y por diversos responsables de entidades culturales de Gipuzkoa, Bizkaia y Alava, solicitando que, una vez finalizado el estudio de los restos óseos, estos fueran devueltos a Red Bay para que pudieran ser dignamente inhumados. La respuesta oficial a dicho escrito resultó del todo insatisfactoria.

4. XVII. mendea. Nazioarteko lehia gogorra

XVI. mendearen amaieran, euskal baleazaleen jardueraren gainbehera hasi zen Kanada aldean, baleen populazioa jaitsi baitzen gehiegizko arrantzaren ondorioz, nahiz litekeena den garai horretan gertatu bide ziren klima aldaketek eragina izatea gainbehera horretan. Era berean, erregeren itsas armadetarako ontziak bahitzeak eta marinelak nahitaez armada horietan sarrarazteak eragin negatiboa izan zuten.

1602an, euskal ontzizabe batzuek Brasilen balea harrapatzeko errege baimena lortu zuten (Bahia eta Salvadorreko kostaldea) baina abentura hark ez zuen ez munta ez iraupen handirik. XVII. mendearen bigarren hamarkadan, Ingalaterra eta Holandako ontzizabeek euskal baleazaleek kontratatu zituzten zetazeoen arrantza sistemak eta prozesatzeko erak ezagutzeko, modu horretara Spitzbergen, berriki aurkituriko Artikoko uhartedian ustiakuntza abiatu ahal izango zuten, ur haietan baleak ugari ziren eta. Ezagupen tekniko horien transmisioa, azkenik, euskal interesentzako guztiz kaltegarri gertatu zen zeren eta, ofizioaren sekretuak behin agerturik, herrialde baleazale berriek ahalegin guztiak egin baitzituzten euskal ontzizabeek eskualde hartako zetazeoen arrantzaren negozio handian parte har zezaten eragozteko. Espainia eta Frantziako erakundeek eragotzi nahi izan zuten euskal baleazaleek beste herrialdeen espedizioetan betetzen zuten instruktore-lana. Lan honi heriotz zigorra ere ezarri zioten, baina, antza denez, neurri horrek ez zuen nahi izandako ondorioa ekarri.

Balearen ehizan eta haren produktuak merkaturatzean euskaldunek izandako nagusitasuna hautsirik, lehia gogorra gertatu zen holandarren, inglesen eta daniarren artean, horiek guztiak konpainia pribilegiatu indartsu eta borrokazaleetan antolatuz eta nork bere estatuak babesturik zihardutela.

Euskal ontzizabeak lehiatzen saiatu ziren arrantzagune berrietan (Spitzberg, Islandia, Norvegia, Groenlandia). Balea harrapatzeko zenbait espediziok Labradorrera eta San Lorentzo golgora eta ibaira jo zuten. Bertan, denbora batez, balearen ehiza eta bakailaoaren arrantza konbinatu zituzten larruak indigenei salerostearekin, baita, lehen aldiz, itsas txakurren ehizarekin ere. Lapurdiko ontzizabeek konpainiak sortuz aurre egin zioten Europako Iparraldeko konkurrentziari ur borealetan, konpainia horiek errege pribilegioek eta Parisko finantzariek babesturik zeudela. Mende horretan ere lumera urtzeko labeak ontzian bertan jartzen hasi ziren, berrikuntza teknologiko arriskutsua baino guztiz errentagarria zena. Gipuzkoako ontzidiak, bere aldetik, Koroak harturiko neurri onuragarriek esker eutsi zion baleazalen jarduerari: babes erregulazioak, bahimenduak eta Itsas Armadan nahitaez sartzetik salbuestea, etab.

Balea harrapatzeko jardueran hainbat herrialdek –goian esandakoei Alemaniatic edo Frantziako Le Havre, Arroxela edo Bordele bezalako portuetatik zetozenak erantsi behar– parte hartzeak eragin suntsizaila izan zuten Ipar Atlantiko eta Artikoko baleen populazioetan.



Hondarribitik datorren xista. Jose Maria Merino etnografoak Untzi Museoari emandako pieza, haren ustez mende batzuk bide ditu.

Parte metálica de una sangradera procedente de Hondarribia. Fue donada al Untzi Museoa por el etnógrafo José María Merino quien consideraba que la pieza podría contar con varios siglos de antigüedad.

4. Siglo XVII. La dura competencia internacional

A finales del siglo XVI la actividad ballenera vasca en Canadá comienza a decaer a consecuencia de la reducción de las poblaciones de ballenas causada por la sobrepesca, aunque posiblemente también debieron influir en el declive los cambios climáticos que, según algunos investigadores, tuvieron lugar en la época. Asimismo afectaron negativamente los embargos de naves y el reclutamiento forzoso de marineros para las armadas reales.

En 1602 algunos armadores vascos obtuvieron licencia real para cazar ballenas en Brasil (costa de Bahía y Salvador) pero esta aventura tuvo escaso alcance y duración. En la segunda década del siglo XVII los armadores ingleses y holandeses contratan balleneros vascos para conocer sus sistemas de caza y procesamiento de cetáceos, y así poder iniciar la explotación de Spitzberg, archipiélago del Ártico, recientemente descubierto, en cuyas aguas abundaban las ballenas. La transmisión de esos conocimientos técnicos resultó nefasta para los intereses vascos puesto que, una vez desvelados los secretos del oficio, los nuevos países balleneros trataron de impedir por todos los medios la participación de los armadores vascos en el gran negocio de la pesca de cetáceos en aquella zona. Las instituciones españolas y francesas intentaron evitar la continuidad de la labor instructora que ejercían algunos balleneros vascos al tomar parte en expediciones de otros países. Se llegó incluso a condenar esta colaboración con pena de muerte pero, al parecer, la medida no dio los resultados que se buscaban.

Rota la hegemonía vasca en la caza de la ballena y la comercialización de sus productos, se estableció una dura competencia por parte de los holandeses, ingleses y daneses, organizados en potentes y belicosas compañías privilegiadas apoyadas por sus respectivos estados.

Los armadores vascos, muchos de ellos labortanos, intentaron competir en las nuevas zonas de captura (Spitzberg, Islandia, Noruega, Groenlandia, etc.). Cierta número de sus expediciones balleneras fueron dirigidas a Labrador y

al golfo y río de San Lorenzo. Allí combinaron, durante algún tiempo, la caza de ballenas con la pesca del bacalao o con el tráfico de pieles con los indígenas o, por primera vez, con la caza de focas. Los armadores labortanos hicieron frente a la concurrencia nórdica en aguas boreales con la creación de compañías sostenidas por privilegios reales y la participación de financieros de París. También en este siglo comenzaron a implantarse hornos para derretir el aceite en el propio barco, una innovación tecnológica peligrosa pero muy rentable. La flota guipuzcoana por su parte, sustentó la continuidad de su actividad ballenera y bacaladera en beneficiosas medidas adoptadas por la Corona: regulaciones proteccionistas, exención de embargos y del enrolamiento forzoso para la Armada, etc.

La participación de tantos países en la actividad ballenera –a los ya mencionados se sumarían los balleneros procedentes de Alemania o de puertos franceses como Le Havre, La Rochelle o Burdeos– incidió de forma demoladora sobre las poblaciones de ballenas del Atlántico Norte y el Ártico.

Mapa honetan XVII. mendeko balea ustiatzen ziren eskualdeak nabarmentzen dira.

Mapa que muestra las zonas de explotación ballenera del siglo XVII.





Euskal baleazaleak Artikoan. Robert Fotherby-ren eskuizkribuari dagozkion 12 marrazki akuarelatuetako bat. Spitzbergera Londresko Muscovy Company enpresak 1613an antolatu zuen balea harrapatzeko espedizioa kontatzen du eskuizkribu honek (American Antiquarian Society bilduma). Ingelesek 24 euskal baleazale kontratatu zituzten kanpaina hartan lan egiteko eta berek erabilitako teknikak ikasteko. Fotherby, konpainiako agenteak narrazio irudiztatu bana egin zuen, bertan xehetasunez erakusten zituela baleak harrapatzeko erak eta horien prozesatzea.

Balleneros vascos en el Ártico. Uno de los 12 dibujos acuarelados pertenecientes al manuscrito de Robert Fotherby que narra la expedición ballenera a Spitzberg organizada por la empresa londinense Muscovy Company en 1613 (colección American Antiquarian Society). Los ingleses contrataron a 24 balleneros vascos para trabajar en la campaña y aprender sus técnicas. Fotherby, agente de la compañía, hizo un relato ilustrado del viaje en el que se muestran con detalle los sistemas de captura y procesamiento de las ballenas.



R. Fotherbyren eskuizkribuko akuarela, 1613.
 Testuan azaltzen denez, "behin balea hilik,
 gizonek soka bat lotzen dute haren gorputzaren
 atzeko aldean eta, beren txalupak elkarri loturik,
 isatsetik eramaten dute atoian ontzietaraino".
 Eskuizkribuak, gainera, lan hori egiteko
 euskaldunek beren txalupak erabili zituztela
 esaten digu.

Acuarela del manuscrito de R. Fotherby, 1613.
 Según explica el texto "una vez muerta la ballena
 los hombres atan un cabo a la parte posterior de
 su cuerpo y con sus chalupas amarradas entre sí la
 remolcan por la cola hasta las naos". El manuscrito
 informa además que para realizar su trabajo los
 vascos utilizaron sus propias chalupas.



Robert Fotherbyren akuarela honek (1613)
 ontziaren ondoan egiten den balearen
 laurdenkatzea erakusten du: "Gero, hartarako
 prestaturiko ontzi baten txopan lotzen dute eta
 hantxe zatikatzen dute. Beste gizon batek gantza
 ebakitzen du forma karratuko puskatan".

Acuarela de Robert Fotherby (1613) que muestra
 el descuartizamiento de la ballena junto a la nao:
 "Después la amarran a la popa de alguna nao
 preparada para ello donde la despedazan. Otro
 hombre corta la grasa en pedazos de forma
 cuadrada".



Gizen puskak lehorra eramaten bertan zatikatzen, gizakiek tiraturiko garabi baten laguntzaz. R. Fotherbyren eskuizkribuko akuarela, 1613.

Traslado a tierra de los lardos de grasa para ser troceados con ayuda de una grúa de tracción humana. Acuarela del manuscrito de R. Fotherby, 1613.



Balearen gantza urtzeko labeak eta galdarak. R. Fotherbyren eskuizkribuko akuarela, 1613.

Hornos y calderas para derretir la grasa de ballena. Acuarela del manuscrito de R. Fotherby, 1613.



Balea bizarrak garbitzea eta prestatzea. R. Fotherbyren eskuizkribuko akuarela, 1613. (Eskuizkribu honen irudi gehiago ikusteko: M. Barkham, "La economía marítima donostiarra en el largo siglo XVI").

Limpieza y preparación de las barbas de ballena. Acuarela del manuscrito de R. Fotherby, 1613. (En M. Barkham, "La economía marítima donostiarra en el largo siglo XVI", pueden verse más imágenes de este manuscrito).



Gipuzkoako Artxibo Orokorrean (Tolosa) kontserbatu den 1626ko dokumentu honek Donostiako ordezkariek Getariako Batzar Nagusietan esandakoa biltzen du. Bertan kezkatuak agertzen dira gipuzkoar marinel batzuek holandarrei balea harrapatzeko antzea erakusten zitelako. Haiei erantzunez, Foru Diputazioak Gipuzkoako herrietan informazioa biltzea agindu zuen zentzagarriak jarri ahal izateko.

Documento de 1626 conservado en el Archivo General de Gipuzkoa (Tolosa) que recoge la intervención de los representantes de San Sebastián en las Juntas Generales de Getaria mostrándose preocupados ante el hecho de que algunos marineros guipuzcoanos estaban enseñando el arte de la pesca de la ballena a los holandeses. En respuesta, la Diputación Foral mandó recabar información en los pueblos guipuzcoanos para imponer correctivos.



Holandar baleazaleen estazioa. Cornelis Claesz van Wieringen-en olio margolana, 1620 i. (New Bedford Whaling Museum, Massachusetts). Jantzera eta obra egin zeneko testuinguru historikoa oinarriturik, historialari batzuek, hala nola Thierry du Pasquier-ek, ondorioztatu dute ezen, holandarren ondoan, margolariak irakasle gisa aritu ziren euskal baleazaleak irudikatu nahi izan zituela.

Estación ballenera holandesa en el Ártico. Óleo de Cornelis Claesz van Wieringen, c. 1620 (New Bedford Whaling Museum, Massachusetts). Basándose en la indumentaria y el contexto histórico en que fue realizada esta obra, algunos historiadores como Thierry du Pasquier han deducido que junto a los holandeses el pintor quiso representar a los balleneros vascos que actuaron como instructores.



Prozesatze lanak holandarren balea faktoria batean, ustez tartean euskaldun baleazaleak direla.
Aurreko orrian erreproduzituriko olio-pinturaren xehetasuna.

Trabajos de procesamiento en una factoría ballenera holandesa con supuesta presencia de balleneros vascos.
Detalle del óleo reproducido en la página anterior.



Baleari arpoia jaurtikitzen, dirudinez euskaldun eta holandar arrantzaleak (69. orrialdeko olio-margoaren xehetasuna). Kapelu hegal-zabaleko eta atorra zuri lepo handiko arraunlaria holandarra izan liteke. Txaluparen kroskoan ageri diren zitoni horiak kontuan hartuta, pentsa genezake euskaldun baleazaleok lapurtarrak zirela.

Arponeo de ballena por una tripulación compuesta, al parecer, por vascos y holandeses (detalle del óleo reproducido en la página 69). El remero que lleva sombrero de ala ancha y camisa blanca de amplio cuello podría caracterizarse como holandés. Las flores de lis que se observan en el casco de la chalupa permiten pensar en el Labourd como posible lugar de procedencia de los balleneros vascos.



Islandiako balea estazio baten fantasiako irudikatze anonimoa, 1638an argitaraturiko Alain Manesson Mallet-en *Description de l'Univers* liburuko irudia. XVII. mendean, Europako herrialde batzuek balea harrapatzeko espedizioak bidali zituzten Islandiara. 1680ko hamarkadan Ipar Euskal Herriko baleazaleek halako jarduera bati eutsi zioten Islandian, nahiz euskaldunak XVII. mendearen hasieratik egonak ziren uharte hartan. Garaiko euskal baleazaleen aztarna islaturik ageri da Jón Gudmundsson (1574-1658) islandiar idazlearen poema epiko batean, 1615ean hiru euskal ontzi kostalde hartan hondoratu izana oroitarazten duena. Bizirik atera zirenetako asko islandiarren eskuz hilko ziren, era izugarrian, lapurtzat salatua izanik. Martin de Villafranca kapitaina, marinela tradizio handiko donostiar familia batekoa, izan zen biktimetako bat. Poema luze horren zati batzuk gaztelerara itzulita bereizi ditugu, S. Huxleyk (Koord.) argitaraturiko *Los vascos en el marco del Atlántico Norte*...

Fantasiosa representación anónima de una estación ballenera en Islandia que ilustra el libro de Alain Manesson Mallet, *Description de l'Univers*, editado en París en 1683. En el siglo XVII varios países europeos enviaron expediciones balleneras a Islandia. En la década de 1680 se mantiene cierta actividad de balleneros vascos-franceses en Islandia aunque la presencia vasca en la isla se remonta a comienzos del siglo XVII. La huella de los balleneros vascos de la época se ve reflejado en un poema épico del escritor islandés Jón Gudmundsson (1574-1658) que hace referencia al naufragio de tres naos vascas que se produjo en aquellas costas en 1615. Muchos de los supervivientes murieron, de manera atroz, a manos de los islandeses, tras ser acusados de robo. Una de las víctimas fue el capitán Martín de Villafranca, miembro de una familia donostiarra de larga tradición marinera. Entresacamos del largo poema algunos fragmentos traducidos al castellano publicados en S. Huxley (coord.), *Los vascos en el marco del Atlántico Norte*...


“En Vizcaya se había hecho a la mar
esta gente ballenera hispana,
no lejos de los confines franceses
con ellos embarcados, hombres de este lugar
(...)
El capitán Martín con su compañero,
reposaba en su cabaña adormecido.
Oyendo rumor de gente armada,
valerosos aprestaron su defensa
(...)
Martín pregunta al grupo que amenaza
qué culpa se le achaca.
¡Que en plena noche sin respetar su paz
toda mi gente pueda morir!
(...)
¡Basta!, Martín, tienes que saber
que nuestro magistrado ha llegado.
Merecerás que se cumpla en ti
lo que los islandeses hemos amenazado.
(...)

Un hombre, violento guerrero llamado Grimur,
dio a Martín un hachazo en la garganta.
Rebotó el golpe en su clavícula.
No fue el golpe mortal que Grimur deseaba.
(...)
Sobrepasó de un salto sus hombros,
salió fuera del círculo, bajó las laderas
y se tiró agitado al mar, cantando salmos en latín.
Los curas y otros muchos atestiguaron esto.
(...)
Ataron una piedra a su cuerpo abierto.
Lo hundieron lo más lejos y profundo que pudieron
Se tornó calma la bahía al instante.
Se atribuyó aquello a causas diferentes”.
(...)




Donostiako ikuspegia, behealdean baleari buruzko eszena bat ageri duena. Romain de Hooghe alemaniarrek hiriei buruz grabaturiko 38 biñetetako bat, *Carte nouvelle de la mer Méditerranée* irudiztatzen dutenak, *Atlas Maritimus de Pierre Mortier* obran (Amsterdam, 1694). Donostia hiriaren irudikapenak distorsio nabarmenak baditu ere, Hoogueren irudiak hiriaren identitate baleazalea aipatu izanaren interesa agertzen du.

Vista de San Sebastián con escena ballenera en la parte inferior. Es una de las 38 viñetas de ciudades que ilustran la *Carte nouvelle de la mer Méditerranée* grabada por el alemán Romain de Hooghe, para el *Atlas Maritimus de Pierre Mortier* (Amsterdam, 1694). Pese a que la representación urbana de San Sebastián contiene claras distorsiones, la imagen de Hooghe ofrece el interés de aludir a la identidad ballenera de la ciudad.



Balea bat arpoitzea Donostian. Goian erreproduzituriko XVII. mendeko irudiaren xehetasuna.

Arponeo de una ballena en San Sebastián. Detalle de la imagen del siglo XVII arriba reproducida.



Jean-Baptiste Humbelot-en irudiak dauzkan liburuxka bat, Parisen argitaratua 1658an. Arpoitzearen eszenaren azpian, euskal balearen hezurdura baten lehen irudikapentzat jo ohi dena erakusten du grabatu honek. Inprimaki honen argitaratzaile ezezagunak aldez aurretik agente bat bidali zuen Norvegiara tamaina handiko balea bat lortzeko, Frantzian jendaurrean erakusteko asmoz. Klaus Barthelmess historialariak dioenez, seguruenik irudikaturiko arrantzaleak Iparraldeko euskaldunak izango ziren, garai hartan baleen bila maiz bidaiatu baitzuten Norvegiako kostaldera. Ageri diren fantasiako osagaiak gorabehera, eszena funtsean arpoitze teknikaren oinarritzaile dagokio (arpoia txaluparekin lotzen duen estatxa eta kostaldetik hurbil kokatzea). Liburuxka honetaz ezagutzen den ale bakarra Herzog Anton Ulrich Museoa dago (Braunschweig, Alemania).

Folleto editado en París en 1658 con ilustraciones de Jean-Baptiste Humbelot. Bajo la escena de arponeo el grabado muestra la que está considerada como primera representación gráfica de un esqueleto de ballena franca. El anónimo editor de este impreso envió con anterioridad un agente suyo a Noruega con el objetivo de adquirir una ballena de gran tamaño para exponerla públicamente en Francia. Tal como señala el historiador Klaus Barthelmess es probable que los pescadores representados fueran vasco-franceses puesto que por esa época viajaron con frecuencia a la costa noruega en busca de ballenas. Pese a los ingredientes fantasiosos que presenta, la escena se ajusta en lo básico a la técnica de arponeo (estacha que une el arpón a la chalupa y localización cercana a la costa). El único ejemplar que se conoce de este folleto se conserva en el Museo Herzog Anton Ulrich (Braunschweig, Alemania).



Donibane Lohizuneko Joanoenia etxea, ("Maison de l'Infante") izenez ezaguna, 1640 inguruan eraikia Joannot de Haranederren aginduz. Etxeko nagusiaren leinuak Ipar Euskal Herriko balea eta bakailao jarduera bultzatu zuen XVII. mendean eta XVIII.ean hura mantentzen ahalegindu zen, eta Joannot familia horretan sorturiko pertsona gailena izan zen.

Casa Joanoenia de San Juan de Luz (conocida también como "Maison de l'Infante") construida hacia 1640 por encargo de Joannot de Haraneder, destacado miembro de una dinastía que impulsó la actividad ballenera y bacaladera vasco-francesa durante el siglo XVII y trató de mantenerla en el XVIII.



Itsas deabrua eta tritoia. XVII. mendean Joanoenia (Donibane Lohizune) etxeko sala handiko habeetan margoturiko itsas munstroetako bi. Lehen aldiz 1573an argitaraturiko Ambroise Pare-ren *Des monstres et prodiges* liburua da etxe honetako itsas ikonografiaren inspirazio zuzena.

Diablo marino y tritón. Dos de los monstruos marinos pintados en el siglo XVII en las vigas del gran salón de la casa Joanoenia (San Juan de Luz). La iconografía marina de esta casa se inspira directamente en el libro de Ambroise Paré, *Des monstres et prodiges*, editado por primera vez en 1573.



Donibane Lohizuneko Joanoenia etxeko erliebe heraldiko batean ageri den galeoia.

Galeón que figura sobre un relieve heráldico de la casa Joanoenia de San Juan de Luz.



Haraneder familiaren armarrria, Joanoeniako tximinian kokaturik dagoena. Armarrriak fruitu arbola bat (aranondoa) agertzen du, haren enborra, era berean, aingura baten ardatza da. Testuak azaltzen duenez, irudiak aingura, itsas jardueraren sinbolo gisa, aranondoen fruitu gozoen (Haraneder abizenaren aipamena) ondo-ondoan jartzen du.

Blasón de los Haraneder emplazado sobre la chimenea de Joanoenia. El escudo muestra un árbol frutal (ciruelo) cuyo tronco es al mismo tiempo la caña de un ancla. Tal como explicita el texto, la imagen yuxtapone el ancla como símbolo de la actividad marítima con los ricos frutos del ciruelo (alusivo al apellido Haraneder o Aran-eder).



Bidarteko (Lapurdi) eliz atariko hilarria, segur aski arpoilari baten hilobia estaltzen duena. Gaur egun testua irakurtezina gertatzen bada ere, eskuinean ikus daitekeenez (Louis Colas-en marrazkia, *La tombe basque*, 1923) Martin de Mendizabal zenduaren izena eta data, 1660, ebakirik agertzen ziren arpoi baten irudikapen eskematikoarekin batera.

Lápida situada en el pórtico de la iglesia de Bidart (Labourd) que recubre probablemente la sepultura de un arponero. Aunque actualmente el texto resulta ilegible, tal como puede verse a la derecha (dibujo de Louis Colas, *La tombe basque*, 1923) figuraba inciso en él el nombre del fallecido, Martín de Mendizabal, y la fecha 1660, junto a la esquemática representación de un arpón.



Donibane Lohizuneko Lohobiague etxea ("Maison Louis XIV" izenez ezaguna), irudiaren ezker aldean. 1643-1649 urte bitartean eraiki zuen Joannis de Lohobiaguek, bakailao eta balearen arrantzan interesak zituen familia gailen horretan sorturikoak. Blanche Hennebutte-ren litografia (*Album des deux frontières*, Baiona, 1850 i., Untzi Museoa bilduma).

Casa Lohobiague de San Juan de Luz (conocida como "Maison Louis XIV") a la izquierda de la imagen. Fue construida entre 1643 y 1649 por Joannis de Lohobiague miembro de una destacada familia de armadores con intereses en las pesquerías del bacalao y la ballena. Litografía de Blanche Hennebutte (*Album des deux frontières*, Bayona, c. 1850, colección Untzi Museoa).



Jonas eta balea. Lohobiague etxean (Donibane Lohizune) margoturiko habe baten xehetasuna, segur aski XVII. mendekoa. Bibliako kontakizunean arrain handi batek Jonas irentsi zuen Jainkoari ez obeditzeagatik, baina hartaz damaturik lehorrera itzuli zen kalterik batere izan gabe.

Jonás y la ballena. Detalle de una viga pintada en la casa Lohobiague (San Juan de Luz), probablemente en el siglo XVII. En el relato bíblico Jonás fue devorado por un gran pez por haber desobedecido a Dios, pero tras su arrepentimiento fue devuelto a tierra sin sufrir daño.




Marsans de Lohobiagueren erretratua Donibane Lohizuneko Lohobiague etxearen sortzailearen semea. Ontzijabe gisa *Marie* baleontziarekin hainbat kanpainatan parte hartu zuen Norvegian, Groenlandian eta Belle Isleko itsasartearen 1664tik 1681era bitartean. Donibane Lohizuneko alkatea izan zen 1680an eta 1691an. Bordelen hil zen 1704an. Lohobiague etxearen bilduma (Donibane Lohizune).

Retrato de Marsans de Lohobiague, hijo del fundador de la casa Lohobiague de San Juan de Luz. Con el ballenero *Marie* participó como armador en campañas en Noruega, Groenlandia y el estrecho de Belle Isle entre 1664 y 1681. Fue alcalde de San Juan de Luz en 1680 y 1691. Murió en Burdeos en 1704. Colección de la casa Lohobiague (San Juan de Luz).

Baionako portuko ontziak, 1679. Jean-Baptiste Colbert-ek eragin zuen Frantziako itsasontzien deskripzioari dagozkion eskuz egindako irudi orrietako baten xehetasuna (Itsas Museoa, Paris). Ezkerrean, A eta B letraz seinaturikoak balearen arrantzan eta distantzia luzeko arrantzan erabilitakotzat jotzen dira. A letraz markaturikoa "flute" bat da, Holandan egindako ontzi borobil mota. L. Turgeon-en arabera, XVII. mendearren bigarren erdialdean Lapurdiko ontzien ia erdia kanpoan egindakoak ziren.

Barcos del puerto de Bayona, 1679. Detalle de una de las láminas manuscritas de la descripción de los barcos de Francia que promovió Jean-Baptiste Colbert (Museo de la Marina, París). Los señalados a la izquierda con las letras A y B figuran como barcos utilizados para la caza de la ballena y la pesca a larga distancia. El marcado con la letra A es una "flute", tipo de nave redonda fabricada en Holanda. Según L. Turgeon los barcos de fabricación extranjera representaban cerca de la mitad de la flota del Labourd en la segunda mitad del siglo XVII.



L E S
V O Y A G E S
A V A N T U R E U X

du Capitaine

MARTIN de HOYARSABAL,

habitant de Cubiburu.

*Contenant les Reigles & enseignemens necessai-
res à la bonne & sèure Navigation.*

Nouvellement Reveu & corrigé en cette derniere im-
pression, & augmenté de la Declinaison du Soleil.

*Par aucuns des plus celebres Mathematiciens suivant les
observations du renommé*

T Y C H O B R A H É.



Sevendent à la ROCHELLE,

*Chez les veuves de Paul & Pierre Tournet,
sur la rive. l'An 1669.*

Martin de Hoyarsabalen itsasbide liburuaren 1669ko argitalpenaren azala (John Carter Brown Liburutegia, Brown Unibertsitatea). Itsasbide liburu hau 1579an argitaratu zen lehen aldiz (ikus 45. or.) eta nabigaziorako obra guztiz baliagarria izan bide zen Frantzia XVII. mendean gutxienez bost aldiz berrargitaratu baitzen. Michael Barkham historialariaren arabera, itsasbide liburu honetan Ternua eta Labradorri dagokion zatia ez zen hobetu harik eta, ondoko mendean, Cook kapitainaren ekarpenak argitaratu arte.

Portada de la edición de 1669 del derrotero de Martin de Hoyarsabal (Biblioteca John Carter Brown, Universidad de Brown). Este derrotero publicado por primera vez en 1579 (véase pág. 45) debió resultar una obra muy útil para la navegación puesto que fue reeditado en Francia al menos en cinco ocasiones a lo largo del siglo XVII. Según el historiador Michael Barkham, la parte de este derrotero relativa a Terranova y Labrador no fue mejorada hasta las aportaciones del capitán Cook en el siglo siguiente.






Piarres Detcheverry "Dorre"-ren *Ixasoco nabigacioneoa* itsasbide liburuaren azala (Baiona, 1677). Euskaraz egindakoa lehenbiziko itsasbide liburuia izateaz gainera, liburu hau gure hizkuntzan egindako lehen obra teknikotzat hartu ohi da. Bertan, Europa, Ternua, Labrador eta San Lorenzo golkoko kostaldea deskribatzen da. Martin de Hoyarsabalek 1579an frantsesez argitaraturiko itsasbide liburuaren bertsio hedatuagoa da. Bi liburuak guztiz baliagarriak gertatu ziren Selma Huxleyrentzat, euskal baleazaleek XVI. eta XVII. mendeetan Ternua eta Labradorren erabilitako portuak kokatu ahal izateko.

Portada del derrotero de Piarres Detcheverry "Dorre", *Ixasoco nabigacioneoa* (Bayona, 1677). Además de ser el primer derrotero náutico escrito en euskera, este libro está considerado como la primera obra técnica escrita en este idioma. Se describen en él las costas de Europa, Terranova, Labrador y golfo de San Lorenzo. Viene a ser una versión ampliada del derrotero de Martin de Hoyarsabal editado en francés en 1579. Ambos derroteros fueron de gran utilidad para Selma Huxley en su trabajo de localización de los puertos utilizados por los pescadores vascos en Terranova y Labrador en los siglos XVI y XVII.



Piarres Detcheverry "Dorre"-k 1689an eskuz egindako mapa, Ternua, Labrador eta San Lorenzo golkoa erakusten dituena. Detcheverry, Donibane Lohizuneko marinelen familia batean sortuak Placenciako, Ternuako bakailao portuko gobernariarentzat egin zuen mapa hau. Frantziako Liburutegi Nazionala, Paris.

Carta manuscrita de Terranova, Labrador y golfo de San Lorenzo realizada por Piarres Detcheverry "Dorre" en 1689. Detcheverry, miembro de una familia de marinos de San Juan de Luz, hizo esta carta para el gobernador de Placencia, puerto bacaladero de Terranova. Biblioteca Nacional de Francia, París.



Manual Devotioñezcoa, Ioanes Etcheberri Ziburuko apaizak euskaraz idatziriko liburua, 1669an Bordelen argitaratua (Koldo Mitxelena Kulturunea Liburutegia). Literatura balio ezagutuko obra honek arrantzaleek bereziki erabiltzeko otoitzak dauzka. Haien artean, baleazaleei zuzenduriko hiru otoitzak daude: *Balea çaleentzat*, *Balea colpatu eta* eta *Balea hill ondoco esquerrac*. Behean gaztelaniazko itzulpena aurkezten da.

Manual Devotioñezcoa, libro en euskera escrito por el sacerdote de Ciboure, Ioanes Etcheberri, editado en Burdeos en 1669 (Biblioteca Koldo Mitxelena Kulturunea). Esta obra, de reconocido valor literario, incluye plegarias específicas para uso de los pescadores. Entre ellas se encuentran tres oraciones destinadas a los balleneros: *Balea çaleentzat* (Para los balleneros), *Balea colpatu eta* (Después de arponear la ballena) y *Balea hill ondoco esquerrac* (Acción de gracias tras la muerte de la ballena). Se presenta abajo la traducción al castellano.

PARA LOS BALLENEROS

Oh, Señor, que protegiste amorosamente al joven Tobías poniéndole al Santo Arcángel como custodio, llevándole el pez a la orilla y dándole la gracia de matarlo, tráenos también a nuestro alcance, la ballena, para que seamos certeros al clavarle el arpón. Para poder vivir hemos de arriesgar nuestras vidas en la mar. Dános, por favor, la gracia de aferrar la ballena.

DESPUÉS DE ARPONEAR LA BALLENA


Señor, hemos herido con golpe de arpón la ballena, más por tu gracia que por nuestro arte, sin que nos haya herido con su fuerza, ni roto el aparejo con los golpes de su cola o los movimientos de su cuerpo, ni puesta la quilla de la chalupa al sol, ni arrastrados mar adentro; cuidanos en estos trances para que podamos

volver a tierra y darte las gracias.

Si la ganancia es grande, el peligro es grande también; protege sobre todo nuestras vidas.

ACCIÓN DE GRACIAS TRAS LA MUERTE DE LA BALLENA

Recibe, Señor, más que millones y millones de gracias y loas, porque tu generosidad nos ha concedido la merced de quitar la vida al mayor de los peces. Nuestras fuerzas no eran nada comparadas con las tuyas. Hemos sentido tu favor en el combate. Gracias a Ti hemos vencido al coloso del mar y lo hemos traído a tierra cubierto de heridas, hecho un despojo, cuando antes era una fiera que se agitaba indomable. Ha sido un milagro de la Naturaleza. Honor y gracia a Ti, Señor.



Samuel Champlain-en Frantzia Berriko maparen xehetasuna, 1612 (Frantziako Liburutegi Nazionala, Paris). Bertan, Ternuako uhartea eta San Lorentzo golkoa eta ibaia agertzen dira. Espazio horretara joaten jarraitu zuten mugaren bi aldeetako euskaldunek XVII. mendean baleazale eta bakailao arrantzale gisa, larruen salerosian eta itsas txakurren ehizan ere jardun zutelarik.

Detalle del mapa de Nueva Francia de Samuel Champlain, 1612 (Biblioteca Nacional de Francia, París). Se muestra en él la isla de Terranova y el golfo y río de San Lorenzo, espacio en el que los vascos de ambos lados de la frontera siguieron estando presentes durante el siglo XVII como balleneros y pescadores de bacalao, interesándose también en el tráfico de pieles y la caza de focas.



Hondarribiko armarrria, XVII. mendearen erdialdekoa, Hondarribiko parrokia elizaren sakristiaren ate gainean kokaturik dagoena. XVI. mendearen armarrrian ez bezala, baleazaleen txalupa hiru mastako ontzi bilakatu da eta osagai berriak azaltzen dira, hala nola lehoia, giltzadun aingerua, sirena eta tritoia. Polikromia, galeoiaren banderei dagokiena gutxienez, zizelkatze lanaren ondoko garai batekoa da.

Escudo de Hondarribia de mediados del siglo XVII emplazado sobre la puerta de la sacristía de la iglesia parroquial de Hondarribia. A diferencia del escudo del siglo XVI, la chalupa ballenera pasa a ser nave de tres mástiles y se incorporan nuevos elementos como el león, el ángel con llaves, la sirena y el tritón. La policromía, al menos en lo que respecta a las banderas del galeón, es de época posterior a la talla.

5. XVIII. mendea. Gainbehera eta indarberritzeko azken ahaleginak

XVIII. mendean, Holanda, Britainia Handia eta Ingalaterra Berria nagusi izan ziren beren ontzidi handiak zirela bide Artiko eta Ipar eta Hego Atlantikoko balea eskualdeetan. Baleek gehiegizko arrantza jasan zuten Groenlandiako ekialdean eta mendebaldean, Davisko itsasartean eta Baffin badian. Amerikar kontinentearen hegoaldeko kostaldera iritsi ziren eta mende horren amaieran Ozeano Barean sartzen hasi ziren.

Mugaren bi aldeetako euskal ontzizabeentzat nazioarteko gerra gatazkek ezin desiratuzko ondorioak ekarri zituzten, eragin negatiboak izan baitzituzten baleazaleen ontzidietan, nahiz jarduera mantendu ahal izan zen, zailtasun eta gorabeherekin, XVIII. mendearen erdira arte. Ipar Euskal Herriko baleazaleek garai onak izan zituzten 1730eko hamarkadara arte eta ezin itzulizko krisian sartu ziren Austriako Ondorengotza Gerrarekin (1744-48). 50.eko eta 60.eko urteetan oraindik munta apaleko kanpaina batzuk antolatzen ziren, Groenlandian eta San Lorentzo ibaian.

Gipuzkoako ontzidiari dagokionez, XVIII. mendeko dinastia aldaketak aurreko esparru mesedegarria ezabatzea ekarri zuen berekin, aurreko egoeran itsas zabaleko arrantzan ziharduten ontzien bahimendua saihesten baitzuten. Kinka horretan, 1718an sei ontzi –garaiko baleontzidi osoa– galdu ziren Cabo Passaroko guduan (Siziliako konkistaren espedizioa); hondamendi horrek gibelarazi egin zuen ontzizabeen eta inbertsiogileen interesa balearen inguruko jarduerarekiko. Guztiarekin ere, Donostiako Kotsulatua, Koroaren babesu zuela, balearen arrantza indarberritzen saiatu zen, 1732an Donostiako Balea Konpainia (Compañía Ballenera de San Sebastián) sustatuz. Enpresa hori Gipuzkoako Aldundiak eta Caracasko Errege Konpainiak babestu zuten, baina sorrerako itxaropenak ez ziren bete eta, azkenean, 1757an deuseztatu zen.

Nolanahi ere, Gipuzkoako balea jarduera ez zetorren bat sektorean erabilitako ontzi kopuruarekin; izan ere, XVIII. mendearen lehen herenean Probintziako marinel asko Lapurdiko arrantzontzietan ontziratzen ziren urtero, lansari garaiak irabazten zituztela.

XVIII. mendearen amaieran, Donostiako Balea Konpainia deuseztatu eta hiru hamarkada geroago, beste saio bat egin zuten Espainian balearen arrantza indarberritzeko asmoz: Errege Itsas Konpainia (Real Compañía Marítima) sortu zen. Antonio Sañez Reguart izan zen ekintza horren bultzatzaile nagusia. Konpainia horrek, gobernuak eta Koroak babesturik, bere helburu nagusia finkatu zuen: Patagoniako kostaldean balea eta itsas txakurra harrapatzeko faktoria bat ezartzea. Konpainiaren operazio gunea Madrilen bazen ere, Kantauri itsasoko marinel eta merkatariek, gipuzkoarrek bereziki, protagonismo handia izan zuten haren sorreran (1789) eta jardunbidean. Hala ere, proiektu handinahi hark ez zuen aurrera egin, besteak beste, gobernuak lurralde haiek kolonizatze ahalegina tratatu zituelako enpresaren helburu ekonomikoak. Konpainia 1803an deuseztatu zen.

5. El siglo XVIII. Declive y últimos intentos de reactivación

En el siglo XVIII Holanda, Gran Bretaña y Nueva Inglaterra dominan con sus grandes flotas las zonas balleneras del Ártico y el Atlántico Norte y Sur. Se persigue abusivamente a las ballenas en las zonas oriental y occidental de Groenlandia, en el estrecho de Davis y la bahía de Baffin. Se llega también a las costas del sur del continente americano y a finales de ese siglo comienzan a introducirse en el Pacífico.

